

BERGARAKO UDALA
ALDI BATERAKO GARBIKETA-PREMIEI ERANTZUTEKO GARBITZAILEEN LAN-
POLTSA OSATZEKO BIGARREN DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK
PRESAZKO DEIALDIA

=====

1.- Deialdiaren xedea

Bigarren deialdi honen xedea da **eraikinetako garbitzaileen lan-poltsa osatzea**, eta horren bitartez **2019ko uda garaian udal eraikinen garbiketa egiteko dauden premiei eta beste premia batzuei ere erantzuteko aldi baterako langileak kontratatuko dira**, lehiaketa bidez. Lan-poltsa honek izaera osagarria izango du aurretik daudenekiko, eta urtebeteko indarraldia izango du eratzten denetik kontatzen hasita; hala ere, indarraldia luzatu ahal izango da alkatearen berariazko ebazpenaren bidez.

Lanpostua sailkapeneko **E sailkapen-mailakoa** da, eta 6. mailari dagokion soldata-maila du, dedikazioaren arabera portzentaia aplikatuta. Halaber, 1. hizkuntz eskakizuna dagokio, ez derrigorrezkoa.

2.- Betekizunak

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Egunero dagozkien eraikuntzen garbiketak egitea, hau da, dagozkien eraikuntzetan, instalazioa bera, barruko altzariak eta elementu guztiak garbitu; eta kasu bakoitzean horretarako emandako tresneria eta garbiketarako aginduak jarraituko dituzte.
- Agorrosingo garbitzaileek garbiketa orokorra egiten den astean urteko opor egun batzuk izango dituzte egun horietan, batean talde batek eta bestean beste taldeak, txandaka.
- Eskolen kasuan, Aste Santuan, Gabonetako oporretan eta abuztuaren amaieratik irailaren hasierara, emandako lan-egutegiaren arabera, garbiketa orokorrak egingo dituzte.
- Agorrosingo kanpoko eremuaren garbitzaileen kasuan, beste garbitzaileen opor-egun, lizentzia eta bajak betetzeko aukera izango dute, eta momentu bakoitzean duten dedikazioa egokitu egingo zaie kotizazioen eraginetarako.
- Lanpostuarekin eta kategoriarekin zerikusia izanik, zerbitzuburuak agintzen dizkion beste batzuk.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie, neurketan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.

- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Eskola-ziurtagiria edo maila bereko titulazioa izatea.
- d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
- f) 1. Hizkuntza Eskakizuna ez derrigorrezkoa.
- g) *Enpresa bitartez edo kontratatuta eraikinetako, instalazioetako, enpresetako edo etxeetako garbiketa-lanetan aritu izana inoren kontura gutxienez 2 hilabetetan.***

4.- Eskabideak

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Bergarako Udaleko Bergararren Arreta Bulegoan emango dute, eta oinarri hauei erantsirik doa.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez izateko:

- a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.
- b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:
 - Nortasun-agiriaren fotokopia.
 - Hala badagokio, eskatutako hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko tituluen edota egiaztagirien fotokopia.
 - Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko edo egindako lanen zinpeko aitopene idatzia.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da, udalak horrela eskatutakoan.

Egiaztatzeko modua izango da lan egindako Enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeko, gainera, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuak dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergararren Arreta bulegoan eta Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, **2019ko uztailaren 5eko 13:30ak arteko** epearen barruan.

5.- Izangaiak onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian ere jarriko dira ikusgai **uztailaren 9an**. Udalak 2 egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrendak, besterik gabe, behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrendak onetsiko ditu Udalak, eta udaleko iragarki taulan eta Bergarako udalaren web-orrian ere argitaratuko ditu.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzien errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda Bergarako Udaleko iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsu aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, birjarpen-errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean.

6.- Epaimahaia

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondorengoak kontuan izanda eratuko da: urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa, eta ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari batek prozesu osoan eta beste batek euskararen frogarako hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin Alkatetza-Lehendakaritzak izendatutakoan.

Udalan presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak eta langileen ordezkariak izendatutako batek parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusatzea. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren

bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan-egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezeko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa-prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badio, proposaturiko izangaiaren ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Lehiaketa-oposizioa epaituko duen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Udaletxeko iragarki-taulan.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, ordezkapen horretarako izendatu den bokalak ordezkatu du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kidek hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusitako gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hauta-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

7.- Merezimenduen fasea

Epaimahaiak ondorengo merezimendu hauek balioztatuko ditu, eskabidean adieraziak izan direnaren arabera, eta agiri bidez egiaztatzea eskatuko die kontratatuak izan aurretik

Lehiaketaldian gehienez ere 30 puntu lortu ahal izango dira.

—Garbitzaile-lanetan Bergarako Udalean egindako lana: Gehienez ere 10 puntu arte, hileko 0,10 puntu.

—Garbitzaile-lanetan egindako beste lana, betiere beste inoren kontura eta kontratuarekin izan denean: Gehienez ere 10 puntu arte, hileko 0,10 puntu.

Merezimendu horiek egiaztatu beharko dira enpresa-ziurtagirien bitartez edo zerbitzuak bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez, eta Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren agiriarekin lagunduta. Egiaztagirietan, betetako funtzioak zehaztu beharko dira.

— Lehen hizkuntza-eskakizunari dagokion euskara-maila izatea: 5 puntu.

Ezaguera hau egiaztatu ahal izango da Epaimahaiak proposaturiko idatzizko eta ahozko proben bitartez. "Gai" edo "ez-gai" kalifikatuko da.

Ez dute froga hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenek 1. hizkuntza-eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera (apirilaren 8ko 64/2008 Dekretua, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzea).

— Gida-baimena eta ibilgailua izatea: 5 puntu

8.- Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

a) Euskara egiaztatu duena

b) Esperientzia gehien duena

c) Aurreko denetan berdinduta balego, zozketa bidez egingo da.

Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuak: puntu gehienekotik gutxienera.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostua betetzeko gutxienera baldintzak betetzen dituenik, lanpostua bete gabe aldarrika dezake.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, behar diren kontratazioak egin ditzan.

Proposatua izan den izangaiak, hautatutako izangaiaren proposamena argitara ematen jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu, eta lanean hasteko kontratua sinatu beharko du.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkezten ez baditu, edo kontratua sinatuko ez balu, bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa-oposizioa gainditu eta azken kalifikazioaren

hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

9.- Lan-poltsa. Kontratazioa - Praktikaldia

Prozesuko baldintzak betetzen dituzten hautagaiekin, udal eraikinen garbitzaileen lan-poltsa osatuko da, eta udalak aldi baterako kontratatzeko dituen premien aurrean bertara joko du.

Alkate-udalburuak dagokien hurrenkeran deituko ditu, eta eskainitako lan-kontratuari uko egiten diona zerrendaren azken tokian jarriko da, edozein dela emandako arrazoia.

Lan-poltsa hau **aurretik dauden lan-poltsen osagarri** izango da, betiere Giza Baliabideen Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak besterik erabakiko ez balu.

Izangai bakoitzari 15 eguneko frogaldia egingo zaio eta gaindituko ez balu lan-poltsatik aterako da, baina berezitu egingo dira udal eraikinetako eta Agorrosoingo frogaldiak, lan bakoitzak berea izango duelarik. Frogaldiak hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du, horren azken balorazioa gai/ez-gai izango da, eta Udal Iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- Lantalderra moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin behineko ezgaitasun-egoeratik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzioa edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Halere, eta frogaldia bukatu aurretik Bergarako Udaleko mediku zerbitzuak *bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko* behar diren osasun azterketa eta frogak egingo dizkio, eta izangaiak horiek egiteari uko egingo balio edo gai ez dela emango balu kontratua bertan behera laga eta lan-poltsatik kanpo utziko du udalak.

10.- Dokumentazioa itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnak eta lan-poltsarako izendatuko direnak izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

11.- Prozesuaren argitalpenak.-

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko web-orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.eus).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo parte-hartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako, eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

12. Gorabeherak.

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

13. Inpugnazioa.

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe eta moduan.